

## **ASEGURU PRIMEN GAINKO ZERGAREN ARAUTEGIA**

**12/1997 ZERGA PREMIATASUN ARAUGINTZAKO DEKRETUA, IRAILAREN 30EKOA**

**(ALHAO, 116. zk., 97-10-10ekoa, gehigarria)**

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua 1997ko azaroaren 17an hartutako erabakiaren bidez)

Abuztuaren 4ko, 38/1997 Legeak, zeinen bidez 1997ko maiatzaren 27ko maiatzaren 27ko Kupoaren Askotariko Batzordeak hitzartutako Kontzertu Ekonomikoaren aldaketa onesten den.

Aipatutako 38/1997 Legearen bitartez aldarrikatutako Kupoaren Askotariko Batzordearen aipatutako Hitzarmenaren edukiak, 1981etik hasita ordurako zituen zenbait zergen kontzertazioaren hitzetan aldaketa batez gainera, beste berri batzuen kontzertazioa suposatu du eta, horregatik, orain arte gure zergen sisteman ez zeudenak.

Kontzertazio berriko zergetako bat Aseguru Primen gaineko Zerga da, indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoaren 31 artikuluan aurrikusitakoarekin bat, Estatuak ezarritako funtsezko eta formazko arau berdinak aplikatuz ordaindu beharko duena. Horregatik derrigorrezkoa gertatzen da oraingo xedapena ematea, zerga berri honen erregulazioa gure ordenamenduan ezartzeko helburuz. [\(6\)](#)

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, gaurko egunean egindako bilkuran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, 1981eko maiatzaren 31ko, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 13 artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren, abenduaren 18ko, 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkion eskumenak erabiliz, presazko arrazoigatik,

### **ERABAKITZEN DUT:**

#### **1. artikulua.- Izaera.**

Aseguru Primen gaineko Zerga aseguru eta kapitalizazio eragiketak zergapetzen dituen zeharkako izaerako zerga bat da, oraingo xedapen orokorraren arauekin bat.

## **2. artikulua**.- Aplikatzeko arautegia.

1. (5) Ekonomia Ituneko 32. artikuluan ezarritakoaren esparruan, xedapen orokor honetan eta hau garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera eskatuko da Zerga.
2. Zerga aplikatzean, Espainiako barne antolamenduaren zati diren nazioarteko hitzarmenetan eta itunetan xedatutakoa kontutan hartuko da.

## **3. artikulua**.- Eremu espaziala.

Zerga aplikatzeko eremu espaziala Espainiako lurraldea izango da, bertan ondoko ugarteak, lurralde itsasoari buruzko, uztailaren 4ko, 10/1977 Legearen 3. artikuluan mugatutako, itsaso hamabi milako mugara arteko lurralde itsasoa eta eremu horri dagokion aireko espazioa barne direlarik.

## **4. artikulua**.- (5) Zerga ordainarazpena, ohiko bizitokia eta zerga egoitza.

**Bat.** Arabako Foru Aldundiak eskatuko du Aseguru Primen gaineko Zerga, aseguru eta kapitalizazio eragiketetan, arriskua edo konpromisoa Araban bada.

**Bi.** Ondorio horietarako, arriskua Araban dagoela joko da, hurrengo arauen arabera:

1. Asegurua ondasun higiezin bada, ondasunak Araban badaude. Arau bera aplikatuko da aseguru ondasun higiezinei eta haien edukiari buruzkoa bada, azken hori aseguru poliza berak estaltzen badu. Aseguru higiezin batean dauden ondasun higigarrien (merkataritza iragaitzako ondasunak salbu) gainekoa baino ez bada, ondasunak dauden ondasun higiezin Araban badago.

Arabian eta beste lurralde batean (foru lurraldea nahiz lurralde komuna) dauden higiezin arriskua aseguru berak estaltzen badu, horietako lurralde bakoitzean kokatuko da, bakoitzean dauden higiezin balioaren arabera.

2. Aseguru edozein ibilgailu motari buruzkoa bada, matrikulatuta dagoen pertsonaren edo erakundearen ohiko bizitokia edo zerga egoitza Araban badago.

3. Aseguru bidaiari batean edota aseguru-hartzailearen ohiko bizitokiz kanpo gertatzen diren arriskuei buruzkoa bada, eta haren iraupena lau hilabetekoa edo gutxiagokoa bada, aseguru-hartzaileak kontratua Araban sinatzen badu kontratua.

4. Aurreko arauetan berariaz zehazten ez diren kasu guztietan, aseguru-hartzaileak, pertsona fisikoa bada, ohiko bizitokia Araban badu; edota bestela, kontratuan zehazten den sozietate egoitza edo sukurtsala, Araban badago.

**Hiru.** Biziaren gaineko aseguruetan, konpromisoa Araban kokatzen dela joko da aseguruaren kontratatzaileak, pertsona fisikoa izanda, Araban badu ohiko etxebizitza;

edota pertsona juridikoa bada, sozietate egoitza edota kontratuaren xede den sukurtsala Araban badago.

**Lau.** Aurreko idatz zatiekin bat, arau espezifikorik ez badago, aseguru eta kapitalizazio eragiketak Araban egindakotzat joko dira baldin kontratatzailea, eragiketak enpresa edo lanbide jarduketak gauzatzean hitzartzen dituen enpresaburu edo profesionala bada, eta haren jarduera ekonomikoaren egoitza Araban badago edota Araban establezimendu iraunkor bat badu, edota halakorik ezean, Araban badu egoitza.

Ondorio horietarako, enpresaburu edo profesional jotzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen araudiarekin bat zehaztutakoak.

**Bost.** 1. Pertsona fisiko batek ohiko bizitokia Araban duela jotzeko, ondoko arau hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaldiaren egun gehienetan Euskal Autonomia Erkidegoan egonez gero, eta Araban dagoen egun kopurua beste bi probintzietan dagoena baino handiagoa bada.

Denbora tarte hori zehazteko, aldi baterako absentziak zenbatuko dira.

Kontrakoa frogatu ezean, pertsona fisiko bat Araban bizi dela joko da haren ohiko etxebizitza probintzia horretan dagoenean.

2. Bere interesak gehienbat Araban baditu. Hala gertatzen dela joko da, baldin pertsona fisiko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren gehiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen badu, eta beste bi probintzietan lortutakoa baino zerga oinarri gehiago lortzen badu Araban. Bi horietan ez dira kontuan hartuko kapital higigarritik eratorritako ondasun irabaziak eta errentak, ez eta gardentasun fiskaleko erregimenean egotzitako oinarriak (profesionala izan ezik) ere.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, azken bizitokia Araban badu.

Bigarren araua aplikatuko da, lehenengo arauan xedatutakoaren arabera, ohiko bizitokia foru lurraldean edo lurralde komunean duela zehazteko modurik izan ez bada. Hirugarren araua egoera bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

2. Espainian bizi diren eta bertan urte naturaleko 183 egun baino gehiago ez dauden pertsona fisikoak Euskadin bizi direla joko da, haien enpresa edo lanbide jardueren erdigunea edo oinarria han dagoenean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, ohiko etxebizitza Euskadin daukaten pertsonak Araban bizi direla joko da, haien enpresa edo lanbide jardueren erdigunea edo oinarria han dagoenean.

3. Pertsona fisiko batek, legalki bananduta ez dagoen bere ezkontideak eta pertsona fisikoaren mende dauden seme-alaba adingabeek ohiko egoitza Araban daukatelako, egoitza Espainian duela jotzen denean, ohiko egoitza Araban daukala joko da. Uste horri kontrako frogak aurkeztu ahal zaio.

4. Pertsona juridikoek zerga egoitza Araban dutela jotzen da, sozietate egoitza probintzia horretan badute, eta administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza han zentralizatuta izanez gero. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori gauzatzen den lekura jo beharra dago.

Zerga egoitza zein den ezin denean erabaki, aurreko irizpideekin bat, honako kasuan joko da pertsona juridikoek Araban dutela zerga egoitza: ibilgetuaren baliorik handiena Euskadin izanda Araban beste probintzietan baino ibilgetu zati handiagoa dutenean.

5. Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga egoitza Araban dutela joko da, kudeaketa eta zuzendaritza Araban gauzatzen badituzte. Kudeaketako eta zuzendaritzako irizpidea aplikatzeagatik, nortasun juridikorik gabeko erakunde eta sozietate zibilen zerga egoitza zehaztu ezin bada, zerga egoitza Araban dutela joko da, baldin ibilgetuaren balio handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanda, Araban duten ibilgetuaren balioa beste probintzietako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.

6. Establezimendu iraunkorren zerga egoitza administrazio gestioa eta negozioen zuzendaritza gauzatzen den lurraldekoa izango da.

Zerga egoitza zein den ezin denean erabaki, aurreko irizpidearekin bat, honako kasuan joko da establezimendu iraunkorrek zerga egoitza Araban dutela: ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanda, Araban beste probintzietan baino ibilgetu zati handiagoa dutenean.

## **5. artikulua.- Egite zergagarria.**

1. Zergari lotua egongo da Aseguru Pribatuen Antolakuntza eta Ikuskapenari buruzko, azaroaren 8ko, 30/1995 Legearen 3. artikulua aipatzen dituen, teknika aktuarialean oinarritutako eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Maila Neurriei buruzko, abenduaren 30eko, 13/1996 Legearen 12. artikulua 6 atalean aurrikusitakoarekin bat, Espainiako Estatuan diharduten aseguru entitateek, zerbitzuen prestaketa libre erregimenean barne, hitzartutako, Zergaren aplikazioko eremu espazialean egindakoak bezala hartzen diren aseguru eta kapitalizazio eragiketen gauzatzea.

2. Zergari lotu gabe gelditzen dira gizarte Segurtasunaren Administrazioako erakundeekin edo, bere legeri bereziarekin bat, Segurtasun Sozialaren erregimen berezietakoren batzuen kudeaketa enkomendaturik duten zuzenbide publikoko entitateekin erakunde aseguratzaileek egiten dituzten hitzarmenetatik datozen eragiketak.

## **6. artikulua.- Salbuespenak.**

1. Aseguru Primen gaineko Zergatik salbuetsiak geldituko dira ondorengo eragiketak:

a) Derrigorrezko gizarte segurantzari eta pentsio planei eta fondoei ordezkoko sistemak eratzten dituzten aseguru kolektiboak buruzko eragiketak.

- b) Aseguru Kontratuari buruzko, urriaren 8ko, 50/1980 Legearen III Tituluaren bigarren atalak aipatzen dituen bizitzaren gaineko aseguruari buruzko eragiketak.
- c) Teknika aktuarialean oinarritutako kapitalizazio eragiketak.
- d) Aseguru Kontratuari buruzko, urriaren 8ko, 50/1980 Legearen 77 artikuluan definitutako berraseguru eragiketak.
- e) Gaude aseguruaren eragiketak.
- f) Esportazioari kreditu aseguru eragiketak eta nekazaritza aseguru konbinatuenak.
- g) Merkantzien edo bidaiarien nazioarteko garraioarekin erlazionatutako aseguru eragiketak.
- h) Nazioarteko garraiorako zuzentzen diren itsasontzi edo aireuntziekin erlazionatutako aseguru eragiketak, jolasbidezko nabigazio edo abiazio pribatua egiten dutenena salbuetsiz.
- i) [\(3\)](#) Osasun laguntzak eta gaisotasunak aseguruaren eragiketak.
- j) [\(7\)](#) Aurreikuspen-plan aseguratuaren eragiketak.

2. Nazioarteko garraio bezala hartzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauteri erregulatzailan zehaztua. Halere, nazioarteko garraioa ez da izango Espainia penintsulako lurraldea eta Balear Uharteak eta Kanariar Uharteak, Ceuta edo Melilla bitartean egiten dena.

Jolasbidezko nabegazio eta abiazio pribatu bezala hartuko da Zerga Berezien arau erregulatzailan definituak.

## **7. artikulua.- Zergaren sortzapena.**

Zerga sortzen da zergapeko eragiketei buruzko primak ordaintzen diren unean. Primak zatikatuak diren kasuan, Zerga zatitutako ordainketa bakoitza egiten den unean sortzen da.

## **8. artikulua.- Zerga-oinarria.**

1. Zergaren oinarria, hartzaileak edo beste batek ordaindutako primaren edo kuotaren zenbateko osoak eratua dago.

2. Ondorio hauetarako prima edo kuota bezala hartuko da Zerga honi lotutako eragiketek kontraprestazio bezala ordaindutako kopuruen zenbateko osoa, eragiten dituen arrazoia edo jatorria eta kobratzeko lekua eta modua edozein izan arren, Aseguruaren Konpentsaziozko Partzuergoaren eta Erakunde Aseguratzailen Batzorde

Likidatzailearen eta primaren gain zuzenean doazen gainerako zergen alde jarritako errekaraguen salbuespenez.

### **9. artikulua.- Subjektu pasiboak.**

1. Subjektu pasiboak dira erakunde aseguratzaileak Zergak zergapetutako eragiketak egiten dituztenean.

Ondorio hauetarako, erakunde aseguratzaileak bezala hartzen dira:

- a) Aseguru Pribatuen Antolakuntza eta Ikuskaketari buruzko, azaroaren 8ko, 30/1995 Legearen 7. artikuluan agertzen direnak.
- b) Establezimendu eskubidearen erregimenean Espainian diharduten, Estatu espainiarra ez den, Europako esparru ekonomikoko kide den beste Estatu batean kokatutako entitate aseguratzaileen sukurtsalak.
- c) Zerbitzuen prestaketa libreko erregimenean Espainian diharduten, Estatu espainiarra ez den, Europako esparru ekonomikoko kide den beste Estatu batean kokatutako entitate aseguratzaileak.
- d) Europako esparru ekonomikoko kide ez diren beste herrietan helbideratutako entitate aseguratzaileen Estatu espainiarrean sukurtsalak.

### **2. [\(9\)](#)**

3. Zergaren erantzule-solidarioak izango dira, Zergaren eragina ziurtatzen ez duten, zerbitzuen prestaketa libreko erregimenean Espainian diharduten Europako esparru ekonomikoaren kide den beste Estatu batean helbideratutako erakunde aseguratzaileek egindako zergapeko eragiketetan Estatu espainiarrean ezarritako enpresari edo profesional kontratatzaileak.

Ondorio horietarako, Zergaren aplikazioko lurraldean ezarriak bezala hartuko dira, bertan bere jarduera ekonomikoaren egoitza, establezimendu iraunkor bat edo bere zerga egoitza duten enpresariak edo profesionalak, nahiz eta Zergari lotutako eragiketak establezimendu horretatik egiten ez dituzten.

### **10. artikulua.- Zergaren jasanarazpena.**

Aseguru Primen gaineko Zerga, zergaren helburu diren aseguruak kontratatzen dituzten pertsonen gain entitate aseguratzaileek oso-osorik jasanarazia izan beharko du.

Jasanarazpenak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauteri erregulatzaileak xedatutakoa bete beharko du.

## **11. artikulua.- Zerga tasa. (4)**

1. **(2) (10)** Ehuneko 8ko karga tasa aplikatuko da zergaren bidez.
2. Eragiketa bakoitzari aplikagarria den zerga tasa Zergaren sorpenaren unean indarrean dagoena izango da.

## **12. artikulua.- (2) Urteko laburpenaren aitortpena, autokitapena eta ingresoa.**

1. Subjetu pasiboek hileroko aurkeztu beharko dute zerga honen aitortpena.

Subjetu pasiboak aitortpena aurkezten den unean bertan zehaztu eta ingesatuko du berari dagokion zerga-zorra, horretarako Ogasun, Finantzak eta Aurrekontuetako foru diputatuak ezartzen dituen lekuak, moduak, epeak eta inprimakiak erabiliz.

2. Subjetu pasiboak ere behartuta daude Zergaren urteko laburpena aurkeztera, horretarako Ogasun, Finantzak eta Aurrekontuetako foru diputatuak ezartzen dituen epe, baldintza eta beharkizunak kontuan hartuz.

## **13. artikulua.- (3) (9) Zerga ordezkariaren izendapenak eta Zerga Administrazioari jakinarazpena.**

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauari egokikuntza.**

Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak zerga maila edo mailak eta Zergaren salbuespenak aldatu ahal zango ditu.

#### **Bigarrena.- Indarraldia.**

1. 1997ko urtarrilaren 1etik hasita ondorioekin sortzen den Zerga, 1997ko urtarrilaren 1etik hasita kobratutako primengatik eskatuko da, aurretik sortutako primetatik datozen zatikapenagatikoak barne, baldin eta dagozkien arriskuak egun hori baino lehen amaitu ez badira.
2. Baina 1 atalean xedatutakoa horrela egon arren, Zergatik salbuetsiak geldituko dira 1996. urtean zeinen epe muga sortzen den, primak edo primen zatiak, nahiz eta benetako ordainketa 1997ko urtarrilaren 1etik hasita egin, arrazoirik gabe epe mugaren aurreratze bat gertatzen bada salbu.

**Hirugarrena.**- Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio oraingo xedapen orokorra garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren zenbait xedapen emateko.

**Laugarrena.**- Oraingo Xedapen orokorraren 12. artikuluko 2 atalean xedatutakoaren beteketa egin arte, guztientzako erregimeneko lurraldean xedatutako xedapenak aplikatuko dira.

**Bosgarrena.**- Zerga Premiatasun Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei bidaliko zaie, baliozkotu edo ezeztu dezaten, indarrean dagoen arauterian xedatutakoarekin bat.

## **OHARRAK**

- (1)
- (2) 1/1998 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 27koa.  
(ALHAO, 20. zk., 98-2-16koa).
- (3) 5/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 21ekoa.  
(ALHAO, 124. zk., 99-10-20koa).
- (4) Ikusi otsailaren 12ko 1/2001 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko lehenengo xedapen gehigarria.  
(ALHAO, 23. zk., 01-2-23koa).
- (5) 4/2002 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 3koa.  
(ALHAO, 146. zk., 02-12-27koa).
- (6) Arautegiko aipamena Ekonomia Ituneko 32. artikuluz ari dela ulertu behar da.
- (7) 1/2004 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 17koa.  
(ALHAO, 32. zk., 04-03-15ekoa).
- (8) 15/2015 Foru Araua, urriaren 28koa.  
(ALHAO, 130. zk., 15-11-6koa).
- (9) 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa.  
(ALHAO, 34. zk., 16-03-23koa).
- (10) 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa.  
(ALHAO, 28. zk., 21-3-10ekoa).